

Laboaren bitartekaria

Hil zenetik hamar urte pasatuta, Mikel Laboaren (Donostia, 1934-2008) obra akuilu eta inspirazio iturri da oraindik ere. Azken lan azpimarragarria Mixel Theret dantzari eta koreografoaren eskutik etorri da. Laboaren bost *lekeitioak* jaso ditu, eta haiek ulertzera bultzatzen du.

Joan den martxoan estreinatu zuen *Lekeitioak* lana, Bilbon, Miarriz (Lapurdi) eta Aulestin (Bizkaia), eta gaur eskainiko du berri, Eako (Bizkaia) poesia egunetan, 22:30etan, Eskolondon.

Ondorengo hau *badok.info*-ko blogean argitaratutako testu baten hainbat pasarterekin osaturiko idazkia da.

... Oso bizirik den norbaitena egin zait Laboaren ahotsa, beste behin, Mixel Thereten emankizutuan. Dantzariaren jarreraren poderioz, baina, ahots hura hildakoen arteko zuzentzen ari zaidala jabetu naiz. Laboak arrasto indartsua utzi zigun bizirik zen bitartean; eta modu horretan betikotu da. Baina ezin berrargitu dabil hildakoen ibaian, bertako fantasma eta izpiritu gaiztoekin deman, baita haserre eta etsituta ere, jabeturik oraino bizirik gaudenok zeinen ulermen makal eta erabilera fribolo egiten dugun bere ahotsaz eta auhenez. Etsituen dabilenean, suntsitu nahiko lituzke haren arrasto guztiak, eta, aingura horretatik libro, arima arinez etorri ama berri goxo baten sabelera. Baina ezinezkoa du, eta, une batzuetarako bada ere, bere burua eskainiko dutenen bila dabil gure artean, bakerik ematen ez dioten bere ahotik atera ziren hots eta arrangura madarika-tu haiei bide bat aurkitu diezaigun.

Une batzuetarako bederen, Mizelengan aurkitu du Mikelek bere gorputza utziko dion adiskidea, bitartekaria; baina ez edozein baldintzatan. *Contrapasso* legearen jakitun, Mikelen ezaugarrien kontrakoak behar ditu haren zama eroaleak: ahotsa zuen hark, isilik behar du honek; gitarraren gibelean ezkutatzen zen figura herabe eta ikarratuaren ordez, gorputz soilez bete beharko du honek egin beharreko. Mikelek utzitako zenbait arrasto aukeratu beharko du beste behin, eta hildakoen izpirituaren oraingo behar larriei bidea egiten saiatu. Magia magia-

ren gainean ipintzen duen erronka beldurgarria.

Iluntasun tenkatu batek giroten du hildakoen eta bizirik daudenen arteko tratua. Eta isiltasun batek. Badaki bitartekariak ezin izango duela onik itzuli bestalde horretan sartu orduko hango mandatarrien lana behar bezala beterik ezean. Kontzentrazio handiz jarri da gure gizona espazio horri so erpin batetik: soka gorri batez zoruan marraztua den lauki beltza da beste dimentsioa irudikatzen duen espazio magikoa. Isilik eta geld. Dimentsio horretan barneratzeko une egokiaren zain.

... Eman du pausoa dantzariak, baina ezin digu aurpegia erakutsi. Begiraleei bizkarra emanez jarraituko du denbora luzez, espazio hura berea egin bitartean bederen; hildakoen ahotsarekin bat egin arte luzean. Pauso batzuk eman eta zorua haztatzen du, saihestetik etzaten da. Zutitzen denean, bi eskuak luzean eta oin puntebederen,

korrika ziztuan aterako den atletaren moduan ipiniko da baina, aurrera jo beharrean, buruz hurrera eramango lukeen mugimendua geldituz. Erorikoa gerta ez dadin, oinak lurrean jarri, makurtu eta etzan egiten da beste behin saihestean, lerro zuzen luze marraztuz.

Laboak utzi zizkigun grabazio guztien artean ez dago *Orreaga* bezain intziri irrintzi asaldagarriagorik. Bortu hertsu batean suertaturiko pasarte odoltsuenera jo zuen horretarako, Erdi Aroko antzinatean euskaldunak ere nor bazirela adierazteko odolez



Mixel Theret, *Lekeitioak* pieza dantzatzen. OLIVIER HOUËK

izenpetu zuten batailara. Koblakieriek derrotatuak *besteak* izan zirela azpimarratu zuten, behingoz, beste horiek gerora handi eta boteretsu bilakatu badira ere. Joan den mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran plazaraturiko pieza hura bakana izan zen Laboaren kantutegian, eta muga bat seinatzen zuen. Eta seinalatutako muga arriskutsu hura nola zeharkatu zitekeen erakutsi zigun.

Gerora, Herioren hegala hotzaren ukitu sentitu berritan, damutu egin zen agian gehiegieria hartaz, eta ezabatu egin nahi izan zuen ausarkeria hura. 1960 eta 1970etako mozkorraldi asaldatuaren ostean eta Herioren ukituaren segidan, harekin bakea egiten saiatu zen kantaria. Ezabatu egin nahi izan zuen, baita memoriatik ere, *Orreaga* salbai lotsagabe hura, eta izen bereko beste bat grabatu zuen hurrengo hamarkadan. Bigarren horri lotu zaidan dantzaria keinu haren leialtasunez, gauzatzen ari den exorzismoaren abiapuntu gisa.

... / ...

Ezpata odoloztatutako lurperatuak izan dira, eta inoizko arrano-hegal handiusteak hegaldatzea ezinezkoa duten hegala haustiak bilakatu dira. Nekatua da ahots hori, gehiegi luzatu eta itoan airea antsian hartzera behar du eta etengabe. Antsia eta hega-

len ezina. Oinak iltzatuak dira zoruan, eta ahots murmurioarekin batera, beso-hegalak figura berrosatzen saiatzen dira. Ez luterako, antsika hartuko baitu airea behin eta berriz bestaldeko izpirituak, eta figura berriz haustiko da behin bitan hirutan. Handik aurrera, etsia onartzu bezala, bi besoek irudi biluzia osatzen dute, erdi hegala, erdi helduleku –beso-hegalak dira, aurpegiarekin batera, beltzez estali gabe dauden gorputzaren atal bakarrak-. Beso-hegal ezinduek gorputz zut eta geldoekin hasiko dira deman; esku zabalduek ukabiletan bilduko. Askatuko badira, aurretik zerbaitek borrokatu behar dute, baina hutsean dabilta. Borroka ezin, eta berriro bilatzen ditu hegala haustiak dantzariak, bigarrena izanda enegarren ahalegina dirudien batean, askeago, bada, oraingoan. Ahotsa nagiki utzita baitabil dagoeneko,

Mikelek utzitako zenbait arrasto aukeratu beharko du Mikelek, eta haren izpirituaren oraingo behar larriei bidea egiten saiatu

gardenago ematen digu auhena, murmurio etsian jausi bitartean, arnas itolarrian. Oihua irrintzi zoroa bihurtzen denerako atxikita geratzen zaizkio hegala haustiak dantzariari gibelera, eta askatzeko ahala eginagatik ere, ezin du. Ez du berehalakoan lortuko; gorputz osoa astinduko dio beste behin dardarak, ahotsaren murmurioz, askatuko badira.

... / ...

Itsasoa eta Lehorra izan zen Herioren hegala hotzak Laboaren ukitu ondorengo lehen *lekeitioa*, egurraren hotsz abiatzen zena. Lehorra bezain leuna da hots hori, ataka horretan lasaitasuna eskaintzeko gai dena. Asko luzatu egin baita orain arteko egina-hala. Aukera ematen dio dantzariari soa une batez guregana zuzentzeko. Berak ezin badu ere, egurraren hotsa hegaldatzen da, eta horrek ematen dio bitartekariari atsedena hartzeko aukera: figura luze etzana, beso baten gainean burua, bestea saihestean. Hain *gurea* bilakatu dugun egur-hotsak ez dio melodiari lehoia zabaltzen, ezta gainontzeko tinbal gehienei larruek eskaintzen dioten epeltasun hurbila ere, baina aski dugu jo lehor horrekin. Kantariaren ahotsa jo soil horretan sostengatzen da, eta gitarraren ukitu aratzen. Aski du horrekin dantzariak loa debekatzeko dion ohantze ilunetik altxatzeko. Badaki ezingo duela denbora neurtu lauki ilunean dagoen bitartean. Denboratik at barneratu baita bera ere, hildakoei harremanetan jartzeko nolabait, haien kondena bera betetzea baitu baldintza.

Bilatu zuen irtenbide bat Laboak 1980ko hamarkada luzean, eta egurraren arrimuan egindako ahaleginari urrutirako bidaia batke jarraitu zion. Ipar Ameriketara jo zuen oihartzunen aztarnen bila, indio harro eta derrotatu haiengana bidaiatu zuen, txerokiengana, bizitzaren taupada haztatzeko.

Ez daki zer eta nolako izango den hurrengo mezua; antzinate-ra edo aitzinera bultzatuko duen, honezkero eramangarri egingo zaion... Bestaldeko hots eta ahots-uhole bakoitzak uzten baitu horrela, *interludio* bakoitza hutsetik abiatzeko enegarren ahalegina bilakatzen zaiolarrik. Zatikatua, dudakor suertatzen da oraingoan, baina lehen aldiz eta segundo batez bada ere, besoak askatu egin zaizkio. Airean marraztutako keinuak berak eramaten du errepikatuzera; indarra berriro bildu eta beste nonbait hainbat aldiz hegaldatuzera...